

Ekonomia solidarioko merkatu sozialak, lankidetzaren sare solidarioen ikuspegitik. Euskal Herriko merkatu sozialaren azterketa

Pablo Arrillaga Márquez
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

Ekonomia solidarioak ekonomia kapitalistarekiko kritikoa den ikuspegi batetik abiatutako errealitate sozioekonomiko eta praktika eraldatzaileak gorpuzten ditu. Eta merkatu soziala da horren hedapenerako azkenaldian garatutako estrategia zentrala. Bertan ekonomia solidarioaren logikan lan eta kontsumitzen duten eragileen arteko harremanak indartu nahi dira, elkartasunean, elkarrekikotasunean eta justizia sozialean oinarritutako ekoizpen-, kontsumo-, banakuntza- eta finantzaketa-harremanen inguruan. Artikulu honetan, merkatu soziala osatu nahi izan dugu Euclides A. Mance filosofo eta ekonomialari brasildarraren lankidetzaren sarearen oinarritutako sareen teoriatik datozen ekarpenekin. Azkenik, irakaspen teoriko hauek lurreratuko ditugu Euskal Herriko merkatu sozialean; izan ere, azkenengo urteetan hartutako norabidea bat dator, neurri handi batean, autore brasildarraren teoriaren elementuekin.

GAKO-HITZAK: Ekonomia solidarioa · Lankidetzaren sare solidarioak · Merkatu soziala.

Solidarity economy based social markets as solidarity cooperation networks. Analysis of the Basque social market

The solidarity economy constitutes different socioeconomic and practical realities from a critical perspective with the capitalist economy. And within this, the social market is the central strategy recently developed for its expansion. Social market aims to strengthen relations between the different agents that work and consume in the logic of solidarity economy, around the relations of production, distribution, consumption and financing based on solidarity, reciprocity and social justice. In this article we will complement the social market with contributions from the theory of solidarity cooperation networks of the Brazilian philosopher and economist Euclides A. Mance. Finally, we will apply these theoretical lessons in the Basque Country's social market, since the direction it has taken in recent years is in line with different elements of the Brazilian author's theory.

KEY WORDS: Solidarity Economy · Solidarity Cooperation Networks · Social Market.

1. Sarrera

Zenbait begirada kritikotatik ohartarazten denez, bizi dugun errealitate ekonomikoak, zeinak langabezia, behin-behinekotasuna, desparekotasuna eta prekaritatea eragin dituen, zabalagoa den eta dimentsio ezberdinak dituen egiturazko krisi batean koka daiteke (Orozco, 2010; Herrero, 2013). Ekologismotik ohartarazten digutenez, egiturazko krisi hau hazkunde ekonomiko mugagabearen ideiapean hedatzen den, lurraren mugak kontuan hartzen ez dituen eta krisi ekologiko batera garamatzen eredu ekonomiko baten ondorioa da (Naredo, 2002). Are gehiago, feminismitik ere, gizarte-erreproduzioarekin eta zaintza-lanekin erlazionatutako krisiaz ohartarazten digute (Carrasco, 2009; Orozco 2006). Bestalde, azkenaldian bizi izan dugun zerbitzu publikoen pribatizazioak, batez ere bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren horienak, geroz eta pertsona gehiago eramaten ditu gizarte-bazterketako egoerara. Horrez gain, egitura politikoei eragiten dien beste krisi baten aurrean gaude, non estatuek euren gizarte-ongizatea hornitzeko mekanismoak bigarren maila batean utzi izan dituzten, merkatuen behar eta eskakizunak asetzeko. Merkatuaren aldeko mentalitatea zabaltzen ari da, Polanyi-ren (1944) terminoetan, merkatuko ekonomia batetik merkatuko gizarte baterako bidea eginez, non bizi-eredu individualistek komunitatearen papera ahultzen duten eta geure burua subjektu sozial eta politikoko gisa ulertzeko dugun modua ere zeharkatzen duten (Orozco, 2010). Argi geratzen da, beraz, gure bizitzaren alderdi ezberdinei eragiten dien egiturazko krisi baten aurrean gaudela, eta alderdi horiek, aldi berean, elkar gurutzatzen dutela. Hortaz, beharrezkoa suertatzen da bestelako bideak aurkitzea, bestelako ekonomia eta gizarteak eraikitzeko, eta pertsona guztiei bizitzea merezi duten bizitza onak eta duinak izatea ahalbidetzeko.

Ildo honetan, ekonomia eraldatzaileak, edo gizarte-erlaldaketa helburu duten eredu ekonomikoak, hazkunde nabaria izaten ari dira nazioartean. Eta Euskal Herria ez da salbuespena. Horien artean ekonomia sozial eta solidarioak badu zeresan handia. Luzaroan, Euskal Herrian ekonomia sozialaz hitz egiterakoan, zuzenean etortzen zitzaigun gogora Arrasateko esperientzia kooperatiboa. Alabaina, 70eko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Mendebaldeko ekonomien ongizate-estatuaren ahultzearekin eta agenda neoliberalaren aplikazioarekin, aipatutako behar sozial eta aldarrikapen berriak agertu izan dira. Horietatik hedatuta, ekonomia sozial berriari lehenik, eta ondoren ekonomia solidarioari lotutako esperantza eraldatzaile berriak sortzen hasi dira.

Ekonomia solidarioa zera da: etengabeko eraikuntzan dagoen ikuspegi teorikoa, errealitate sozioekonomikoa eta praktika enpresariala. Gaur egun indarrean dagoen eredu ekonomikoa eraldatu nahi du, zenbait baliori lehentasuna emanez, hala nola justiziarri, lankidetzari, elkarrekikotasunari eta elkarren laguntzari. Hau da, aipatutako egiturazko krisi honen markoan, harreman ekonomikoak birpentsatzeko saiakera bat da ekonomia solidarioa. Pertsonak eta haien lana sistema ekonomikoaren erdigunean jartzen ditu, eta, beraz, ekonomiaren helburu nagusia mozkinak maximizatzea izatetik, pertsona guztien ongizatea izatera igarotzen da. Beste modu batean esanda, kapitalaren metaketa helburu duen sistema ekonomiko batetik, pertsonak sistema ekonomikoaren erdigunean jarriz, bizitzaren ugalketa hedatua helburu

duen bestelako sistema batera igarotzea ahalbidetzen duen errealtatea osatzen du (Pérez de Mendiguren *et. al.*, 2009). Ekonomia, helburu izatetik, ongizatea lortzeko bitarteko bat bezala aldarrikatuz; eta pertsonak, helburu ekonomikoa lortzeko baliabideak izatetik, jarduera ekonomikoaren helburu gisa kontsideratuz (Askunze, 2013).

Horrenbestez, ekonomia solidarioaren garrantzia eta emergentzia argi gelditzen da gaur egun. Izan ere, kapitalismoaren sorkuntzatik, horrek eragiten dituen desparekotasun- eta bidegabekeria-egoerei erantzuna ematen saiatu diren esperientziak egon dira. Eta XX. mendearen azken laurdenetik aurrera, ekonomia solidarioak horietako bat osatzen du. Beraz, kapitalismoaren historiarekiko errealtate berria osatzen duen arren, etengabeko hazkundera izan du sortu zenetik. Eta ekonomia solidarioak jarraitu duen bere garapen horretan, aurkitu du Euskal Herrian, bai eta beste lurralde batzuetan ere, erronka berri bat: merkatu sozial bat eraikitzea, alegia. Merkatu sozialak, bestelako edozein merkatuk bezala, ondasun eta zerbitzuak salerosten diren espazioa izan nahi du. Hala ere, bertan jarduten duten eragileak ekonomia solidarioaren logikan ekoizten eta kontsumitzen dutenak dira; aipatutako balioetan oinarritzen direnak, hain zuzen ere. Alabaina, merkatu sozialak oso esperientzia berriak dira oraindik ere —behintzat, gure testuinguruan— eta garapen teoriko eskasa izan dute orain arte; nahiz eta, ikusiko dugun moduan, ekonomia solidarioaren hedapenerako ezinbesteko tresnak diren.

Artikulu honetan, batez ere Euclides A. Mance autore brasildarrak garatutako ideia bat lotu nahi dugu merkatu sozialaren garapenarekin: lankidetzaren solidarioan oinarritutako sareen teoria, alegia. Izan ere, nahiz eta testuinguru ezberdinetatik abiatzen diren, teoria horren eta merkatu sozialaren arteko konbergentzia handia aurki daiteke. Are gehiago, merkatu sozialak Mance-ren teoriaren adierazpen praktikotzat har ditzakegu, ekonomia solidarioaren sareetako barne-kontsumoa eta elkarren laguntza sustatzen dituzten esperientziak direlako. Horregatik, artikulu honen bitartez, batetik, merkatu sozialaren inguruko garapen teoriko eskasari ekarpen bat egin nahi zaio. Izan ere, merkatu soziala Euskal Herriko ekonomia solidarioaren estrategia zentralizat hartu da sortu zenetik. Eta bestetik, merkatu sozialek lankidetzaren sare solidario gisa duten potentziala aztertu nahi da. Mota honetako sareek hazteko duten gaitasunagatik, ekonomia solidarioaren hazkunderako estrategia egokiak direla uste da. Eta, azken finean, ekonomia solidarioak arestian aipatutako egiturazko krisiari alternatibak eskaintzeko errealtate bat osatzen du.

Horretarako, lehenengo, ekonomia solidarioaren hurbilketa teorikoa egingo da. Ondoren, ekonomialari eta filosofo brasildarraren lankidetzaren solidarioen sareen ideia azalduko da, aurrerago merkatu sozialaren inguruko garapen teoriko eskasari ildo honetatik datozen ekarpenak batzeko. Eta azkenik, Euskal Herriko merkatu sozialaren karakterizazioa egingo da eta azaldukoarekin bat egiten duen bilakaera abiatu duela frogatuko da.

2. Ekonomia solidarioa

XVIII. mendearen azken herenean, kapitalismo industrialaren hedapenarekin, eta horrek sortzen zituen bizi-baldintza latzei erantzuteko, talde sozial herrikoiek

sortutako elkarteak, kooperatibak eta mutualitateak dira gaur egun ekonomia soziala izenez ezagutzen dugun errealitatearen hastapen modernoak (Monzón, 2006). Ordutik, ekonomia soziala osatzen duten antolakundeak eurak, ekonomia sozialaren definizioa fintzen joan ziren, harik eta 2002. urtean orain arte egindako azkenengo mugapen kontzeptuala argitaratu zuten arte. Mugapen horrek, ekonomia sozialaren printzipioen bitartez egin zenak, ekonomia sozialaren parte izateko enpresa edo antolakunde batek jarraitu behar dituen zazpi printzipioak biltzen ditu. Honakoak dira (Monzón eta Chaves, 2012:20):

1. Pertsonen eta helburu sozialaren lehentasuna kapitalaren gainetik.
2. Borondatezko atxikimendu irekia.
3. Bazkideen kontrol demokratikoa (fundazioak izan ezik, bazkiderik ez dutelako).
4. Bazkideen interesen eta interes orokorraren bat-egitea.
5. Elkartasun- eta erantzukizun-printzipioen defentsa eta aplikazioa.
6. Kudeaketarako autonomia eta botere publikoekiko independentzia.
7. Mozkinen gehiengoa garapen iraunkorraren, bazkideen interesen eta interes orokorraren aldeko helburuetara bideratzea.

Hala ere, geroz eta arreta handiagoa eskatzen ari zen sektore honen jardueraren kontabilitatea aurrera eramateko, eta hori herrialde ezberdinetan bateragarria eta konparagarria egin ahal izateko, definizio zientifiko-akademikoa publikatzea beharrezkoa egin zen. Horrenbestez, egun akademikoki honako definizio hau erabiltzen da:

Conjunto de empresas privadas organizadas formalmente, con autonomía de decisión y libertad de adhesión, creadas para satisfacer las necesidades de sus socios a través del mercado, produciendo bienes y servicios, asegurando o financiando, y en las que la eventual distribución entre los socios de beneficios o excedentes así como la toma de decisiones no están ligadas directamente con el capital o cotizaciones aportados por cada socio, correspondiendo un voto a cada uno de ellos, o se llevan a cabo en todo caso mediante procesos democráticos y participativos de toma de decisiones. La economía social también agrupa a aquellas organizaciones privadas organizadas formalmente con autonomía de decisión y libertad de adhesión que producen servicios no de mercado a favor de las familias, cuyos excedentes, si los hubiera, no pueden apropiarse los agentes económicos que los crean, los controlan o los financian (Monzón eta Chaves, 2012: 23).

Ekonomia solidarioa, berriz, ekonomia sozialaren enborretik sortzen da; azken horrek XX. mendearen azken herenean izandako hazkunde enpiriko eta akademikoaren testuinguru batean. Izan ere, krisi, erregulazio ekonomikorako aldaketa eta korrante liberalean oinordetutako prozesu globalizatzailearen zabalkuntzaren testuinguruan, agenda neoliberalak hegemonia lortzen du nazioarteko ekonomian. Eta egoera horren aurrean, ekonomia kapitalistarekiko edo/eta ideologia neoliberalarekiko kritikoak ziren zenbait ikuspegi teoriko, errealitate sozioekonomiko eta

praktika enpresarial areagotzen hasten dira. Hegoaldetik zein Iparraldetik datozen esperientzia hauek, ezberdinak direnak, baina guztiek ekonomiaren eta prozesu ekonomikoen papera beste modu batean ulertzen dutenak, ekonomia solidarioaren terminoaren aterkipean kokatzen hasten dira (Pérez de Mendiguren *et. al.*, 2009).

Terminoaren jatorria aurkitzeko, Latinoamerikara jo behar dugu. Izan ere, Luis Razeto autore txiletarrari aitortzen zaio haren sorkuntza 1984an idatzitako *Economía de la Solidaridad y Mercado Democrático* lanagatik. Garrantzitsua da Latinoamerikatik datozen ekarpenak arakatzea, esan dugun moduan, ekonomia solidarioa osatzen duten esperientziak era askotakoak direlako; eta, beraz, bakoitzak izandako bilakaera historikoagatik eta berezko ingurune instituzionalengatik eragin handia jasan dute. Horrela, ekonomia solidarioaren terminoaren garapenari ekarpen ezberdinak eskaini dizkiote nazioartean. Egun, bi korronte teoriko nagusi antzeman ditzakegu, nahiz eta bakoitzak bere aldaerak dituen: korronte latinoamerikarra eta korronte europarra.

Latinoamerikan, Txile, Brasil eta Argentinatik idazten duten autoreen ekarpenak nagusitu dira (ikus, Da Ros, 2007), nahiz eta geroz eta ekarpen gehiago aurki ditzakegun, eta horiek esparru akademikoa gainditzen duten. Esparru instituzionaletatik, herri-mugimenduetatik edo ekonomia solidarioa bera osatzen duten antolakundeetatik datozen ekarpenak ugariak dira. Ekonomia solidario latinoamerikarraren corpus teorikoa osatzen duten oinarriei begiratzen badiegu, azkar antzemango dugu herri-ekonomiak duen pisua. Herri-ekonomia da etxeko unitateen¹ elkarren laguntzarako sareen, komunitateen eta elkarten bitartez antolatzen den ekonomia (Coraggio, 2011: 99). Merkatu-trukean edo/eta elkarrekikotasun-harremanetan oinarrituta dago. Haren helburu nagusia da sare horiek osatzen dituzten kideen bizitzaren ugalketa hedatua; eta ez, kapitalaren ugalketa. Herri-ekonomia, beraz, enpresa kapitalisten eta estatuaren artean, espazio propioa duen sektorea da Latinoamerikan, eta Núñez-ek (1996) dioen moduan, ekoizle/langile herrikoiek, kapitalistak bihurtu gabe, merkatu-estrategia batekin ekiteko eta kapitalismoarekin eta haren eskalako ekonomiekin lehiatzen saiatzeko duten modu bakarra gorpuzten du. Ekonomia solidarioak hemendik edan egingo du alternatiba ekonomikoak planteatzeko.

Korronte latinoamerikarrak baditu, hala ere, beste oinarri teoriko batzuk. Garapen komunitariotik hurbil batzuk, beste batzuk antolakundearen kudeaketaren inguruan, eta ekimen ekonomikoak gainditu behar dituen mugimendu bezala aurkezten dutenak ere. Azken horien artean, nagusia Marcos Arruda autore brasildarra litzateke. Haren aburuz, ekonomia solidarioak arlo ekonomikoa gainditu behar du eta garapen integralerako paradigma holistiko berria planteatu, zeina autogestioan eta elkartasunean oinarrituta eta herri-mugimenduetatik gidatuta egongo den (Arruda, 2004; 2010).

1. Coraggio-rentzat (2007), etxeko unitateak, *unidad doméstica*, etxe batean bizi den familia-unitatea gainditu dezake. Autorearentzat, etxeko unitate bakoitza modu iraunkorrean loturik dauden gizabanakoen taldea da, elkartasunez eta eguneroko erantzukizunean bere kide guztien bizitzaren berehalako ugalketarako beharrezkoak diren baldintza materialak lortu eta banatzeko biltzen dena.

Europar garatutako korranteak, bestalde, ekonomia sozialaren influentzia handiagoa izan du. Batez ere, Europa frankofonoan garatu den ikuspegia da, baina garapena izan du Quebec-en ere. XX. mendearen azken laurdenean ekonomia sozialaren enborretik, baina beste logika ezberdin batzuekin garatutako esperientziak izendatzeko, ekonomia sozial berriaren terminoa erabiltzen hasten da. Antolakunde berri hauek gutxienez hiru ezberdintasun erakusten dituzte zaharrekiko (Monzón eta Chaves, 2012: 34): i) Ongizate-estatuaren ahultzearekin batera etorritako merkaturen desarauketa eta pribatizazioen aurrean sortzen ari ziren behar berriei aurre egiteko sektoreetan presentzia handiagoa erakusten dute. ii) Horietan jarduten duten eragileen izaera berria. Lehen interes mutualistan oinarritutako antolakundeak baldin baziren, zeinetan bazkideen interes material partekatua bilatzen zen, antolakunde berri hauek elkartasunean oinarritzen dituzte euren harremanak eta demokrazia ekonomikoan sakontzeko helburu esplizitua erakusten dute, mozkinak lortzeko asmoaren gainetik. iii) Orokorrean, eraldaketa sozialerako duten borondate eta konpromisoa azpimarragarriagoa da.

Ekonomia sozial berri honek ekonomia sozial klasikoaren figura juridikoak erabiltzen jarraitzen duen heinean, ezin da esan ekonomia soziala ez denik. Hala ere, «berria» adjektiboa gehitzeak badu zeresan handia. Sajardo eta Chaves-entzat (2006), antolakunde berrien izaera politikoagoa agerikoa da. Laville-rentzat (2013), aldez, ekonomia sozial klasikoaren kontraesanak² gainditzen dituen eredia gorpuzten du. Alabaina, denborarekin ekonomia sozial berriaren terminoa ekonomia solidarioarenak ordezkatu du, eta horrekin batera, Latinoamerikatik datozen hainbat eztabaida eta ikuspunturekin konbergentzia egon da (Pérez de Mendiguren *et. al.*, 2009).

Ekonomia solidarioak Europar izan duen garapen teorikoari begiratzen badiogu, hainbat diziplina akademikatik ikertua izan dela antzemango dugu. Alabaina, esan genezake influentzia gehien izan duena soziologia ekonomikoa dela. Ildo horretan, Karl Polanyi antropologo eta ekonomialari hungariarraren ekarpena nagusitzen da. Polanyi-ren (1944) obra zabalaren analisi batek artikulu honen mugak gaindituko lituzkeen arren, badira, gutxienez, azpimarratu beharreko bi kontzeptu. Autore hungariarra, eta ondoren ekonomia solidarioa, ekonomiaren ikuspegi substantibo eta plural batetik abiatzen dira. Ekonomia substantiboa da, gizarte-egituretan txertatuta dagoelako; hots, ez da, ekonomia neoklasikoak argudiatzen duen moduan, esfera isolatu bat. Eta, beraz, aldaketa sozialek ekonomian dute eragina eta alderantziz. Bestalde, ekonomia plurala da, integrazio ekonomikoa merkaturan baino polo ekonomiko gehiagotan ematen delako. Autorearen ikerketa antropologikoak erakusten duenez, ez da kapitalismoaren sorkuntzara arte non merkatuak integrazio ekonomikorako lehenetsunezko polo ekonomikoak bihurtuko diren. Aurretiazko gizarteetan, beste printzipio batzuk nagusi ziren, eta hurrengoak aipatzen ditu: birbanaketa, elkarrekikotasuna eta biziraupeneko ekonomia. Horiek, merkatutik

2. Zenbait ikuspegi kritikotatik ekonomia sozialaren teoria edo printzipioen eta praktikaren edo egunerokotasunaren arteko *desakople* bat egon dela esaten da. Hori, ekonomia sozialak merkatu kapitalista globalean lehiatzeagatik eratorri da; azken horien logika eta praktikak onartu baititu neurri batean. Eta beraz, isomorfismo-prozesu bat egon da, zeinean ekonomia sozialeko antolakundeek —kooperatibak oro har— merkatu kapitalistak berezkoak dituen jokabide batzuk barneratzea ekarri duen.

kanpo ematen dira, eta hala badagokio, ekonomia ez-monetizatuaren bitartez. Ekonomia solidarioak, esan bezala, ekonomiaren pluraltasun hau aldarrikatzen du eta merkatuan ematen diren jarduera ekonomikoez gain, merkatutik kanpo ematen direnak kontuan hartzen ditu, hala nola etxeko eta zaintza-lan ez-ordainduak, denbora-bankuak, moneta sozialak, truke-sareak, elkarlanean oinarritutako kontsumo-taldeak, lan boluntarioa, auzolana, etab.

Hala ere, ekonomia solidarioak beste ikuspegi kritiko batzuetatik datozen ekarpenetatik ere edaten du. Eta lehenago esan dugun moduan, korrante teoriko, errealitate sozioekonomiko eta praktika enpresarial anitzen topagune izan daiteke. Horrela, ekonomia ekologikotik, ekonomia feministatik, ekonomia instituzional zaharretik eta giza garapenaren ikuspegitik datozen ekarpen teorikoak aintzat hartzen ditu (Guridi eta Pérez de Mendiguren, 2014). Bai eta herri-mugimendu ezberdinetatik datozen ekarpenak edo esperientzia eraldatzaile eta sozialki berritzaileetatik datozenak ere, hala nola mugimendu ekologista, feminista, altermundista eta abarretik datozenak, edo autogestioan oinarritutako lan, finantzaketa edo kontsumo elkartuan oinarritutako esperientzia kolektiboetatik datozenak.

Hortaz, definizio bat ematea ez da gauza erraza, ez baitugu aurkituko nazioartean onartuta dagoen bat. Dena den, hurbilketa fidagarria lor dezakegu proposatutako definizio ezberdinak arakutzen baditugu. Oro har, ekonomia solidarioak ekonomian sortzen diren harremanak eraldatzea du helburu. Horregatik, ekoizpena, banakuntza, kontsumoa eta finantzaketa justizian, lankidetzan eta elkarrekikotasunean oinarritzen ditu. Horretarako, kapitalaren logikaren aurrean, bizitzaren ugalketa hedatua proposatzen du; jarduera ekonomikoaren erdigunean pertsonak eta haien lana jarritz. Horrenbestez, ekonomia, pertsonen ongizatea lortzeko eta planetan dagoen bizitzaren ugalketarako lanabes bezala ikusten da; inoiz ez helburu (Pérez de Mendiguren *et. al.*, 2009). Hau da, ekonomiak egun dituen lehentasunen iraulketa eskatzen du; pertsonak, haien beharrak, gaitasunak eta lana, kapitalaren eta haren ugalketa- eta metaketa-prozesuen gainean jarritz (Askunze, 2013).

Euskal Herrian, ekonomia solidarioa sare batzuen bitartez zabaltzen da. EAEn, bi sarek jarduten dute: REAS Euskadi³ eta Olatukoop⁴. Nafarroan, REAS Nafarroak⁵ jarduten du. Eta Iparraldean, Chambre Regionale de l'Économie Sociale et Solidaire d'Aquitaine (CRESS)⁶ legoke. Baina azken kasu horretan azpimarragarria da *Euskoa*-ren esperientzia, bertan eragiten duen moneta soziala.

3. REAS Euskadi, 1997. urtean jaiotako sarea da eta EAE mailan ekonomia solidarioaren logikan lan egiten duten enpresa eta antolakunde ugari barneratzen ditu (www.economiasolidaria.org/reas-euskadi). Aldi berean, REAS Red de redes-en parte ere bada, zeinak ekonomia solidarioaren inguruan estatu-mailan lan egiten duten zenbait lurralde-sare saretzen dituen (www.reasred.org).

4. Olatukoop, 2014an formalki aurkeztutako sarea da. Ekonomia solidarioaren logikan lan egiten duten enpresak eta antolakundeak biltzen ditu honek ere. Hala ere, azpimarragarria da Olatukoop-ek ekonomia solidarioaren terminoa erabili ordez, Ekonomia Sozial Eraldatzailea (ESE) erabiltzen duela (www.olatukoop.eus).

5. REAS Nafarroa, Nafarroan jarduten duen REASen lurralde-sarea da (www.economiasolidaria.org/reas-navarra).

6. www.cress-na.org

Ekonomia solidarioa osatzen duten enpresa eta antolakundeen jardunbideei begira, REASek 2011n publikatutako ekonomia solidarioaren printzipioen gutunean⁷ biltzen direnak kontsidera ditzakegu irizpide normatibo gisa. Hemen laburpen bat (REAS, 2011):

1. Ekitate-printzipioa: menderakuntza-harremanen kontra, berdintasuna funtsezko helburu soziala da.
2. Lanaren printzipioa: pertsonen oinarritzko elementua da eta parte-hartze ekonomikoa eta komunitarioa sustatzeko modua dela ulertzen da.
3. Ingurumen-iraunkortasunaren printzipioa: jarduera ekonomiko oro natura-rekin harremanetan dago, eta, beraz, iraunkortasun ekologikoa lortzeko gizakiaren azterna ekologikoa murriztea beharrezkoa da.
4. Lankidetzaren printzipioa: lehiaren ordeztu. Horregatik harreman ekonomikoak justizian, berdintasunean, gardentasunean eta errespetuan oinarritzen dira.
5. Irabazi-asmorik gabekoa izatearen printzipioa: mozkinak proiektuaren xede soziala zabaltzeko edo beste ekimen solidario batzuk sustatzeko izango dira.
6. Inguruarekiko konpromisoaren printzipioa: tokiko garapen iraunkorra bultzatzeko eta komunitate lokala indartzeko konpromisoa.

Praktikan, honako ekimenak kontsidera ditzakegu ekonomia solidarioaren parte: laneratze-enpresak; gizarte-ekimeneko kooperatibak edo/eta baliagarritasun publikokoak; helburu sozialeko jarduera ekonomikoak gauzatzen dituzten elkarte eta fundazioak; hirugarren sektoreko lan-elkarteak; bidezko merkataritza, merkataritza solidarioa eta/edo ekologikoa sustatzen duten ekimenak; enpresa solidarioak bultzatzen dituzten entitateak; kontsumo arduratsua sustatzen duten ekimenak; truke-sareak; denbora-bankuak; banku etikoa; langileek berreskuratu eta autogestionatutako enpresak, etab. (Guridi *et al.*, 2011:19). Eta, oro har, burujabetza ezberdinak berreskuratzeko ekimen ekonomikoak, hala nola energia-, elikadura-, finantza-burujabetzak, etab.

Horrela, ekonomia solidarioaren antolakundeen indar eraldatzailea, jarduera ekonomikoaren erdigunean kapitala jarri ordeztu, pertsonak jartzetik dator. Xehetasun batzuekin: i) «Pertsonak» diogunean, pertsona indibidualak, antolakundeetako erabiltzaileak, komunitatea, gizartea, ingurumena eta abar esaten ari gara. ii) «Erdigunean jartzeak» eredu ez-kapitalista bati jarraitzea esan nahi du. Ez dira kapitalak gidatzen dituen antolakundeak izango, hori ez delako helburutzat hartzen, baizik eta bitartekotzat. Helburua, beraz, ez da mozkinak maximizatzea izango, baizik eta pertsonen ongizatea lortzea; horregatik, irabazi-asmorik gabekoak izango dira eta ezin izango dituzte mozkinak banatu euren bazkideen artean. Beraz, jarduera ekonomikoa aurrera eramateagatik egon litezkeen mozkinak antolakunde berrinbertitzeko, beste antolakunde solidario batzuk sustatzeko edo interes orokorreko beste ekimen solidario batzuk bultzatzeko bideratu beharko dira. iii) «Jarduera ekonomikoa» merkatukoa, ez-merkatukoa eta ez-diruzkoa izan daiteke. Eta beraz,

7. Ekonomia solidarioaren printzipioen gutuna:

<https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/pages_attachments/2011%20EKONOMIA_SOLIDARIOAREN_GUTUNA_REAS.pdf>.

merkatutik kanpo egiten diren lanak aintzat hartzen dira. Horrela, adibidez, zaintzalanak aitortu eta ikusgarritasuna ematen zaie, denboren berrantolaketa baterako lehenengo pauso bat ahalbidetuz. iv) Eta azkenik, ekoizpen-baliabideen jabegoa kolektiboa da, eta langile edo bazkideek demokratikoki kudeatuta daude; modu horretan, demokrazia ekonomikoan sakontzen dute.

3. Lankidetzaren solidarioan oinarritutako sareak

Ekonomia solidarioan artikulatzen diren merkatu sozialak izanik artikulatu honetako ikerketa-objektu nagusia, eta horien inguruan dagoen literatura eskasa dela kontuan izanik; haren gertutasun teorikoagatik, Euclides A. Mance-k garatutako lankidetzaren solidarioan oinarritutako sareen teoria aztertuko dugu, ondoren, teoria horrek merkatu sozialei egin diezazkiekeen ekarpenak antzemateko. Izan ere, ikusiko dugun moduan, Mance-ren (1999; 2004; 2008...) lankidetzaren solidarioan oinarritutako sareek eta merkatu sozialek antzeko ezaugarriak dituzte. Funtsean, biak ekonomia solidarioko antolakundeek osatutako sareak baitira, non euren arteko ekoizpen- eta kontsumo-harremanak elkarrekikotasunean oinarritzen diren. Eta, beraz, sare hauetan, antolakundearen arteko berrelikadura sortzen da, sarearen parte diren antolakunde guztiak indartuz sarea bera ere indartzen den bitartean; eta, ondorioz, aberastasuna eta enpleguak sortzen dira (Mance, 1999:1).

Atal honetan, beraz, filosofo eta ekonomialari brasildarrak garatu duen teoria hau aztertuko dugu labor. Izan ere, ezinezkoa da, luzera eta sakontasunagatik, autore horren garapen teoriko guztia hemen aztertzea. Horregatik, ekoizpen- eta kontsumo-harremanen bitartez sortzen diren dentsitate handiko sare solidario hauen ezaugarri garrantzitsuenak aztertuko ditugu, betiere teoria honetatik merkatu sozialei egin dakizkiekeen ekarpenei bereziki erreparatuz.

Testuingurua hobeto ulertzeko, Mance-ren (2008) lankidetzaren solidarioan oinarritutako sareen teoria, emantzipazio soziala helburu duen gizarte postkapitalista baten eraikuntza-prozesuan kokatzen da. Autorea kapitalismoak bazterten dituen sektore herrikioen burujabetzarako proposamen batetik abiatzen da, esan bezala, bestelako gizarte postkapitalista bat eraikitzeke; ekoizpen- eta kontsumo-harreman solidario eta eraldatzaileak oinarri izanik. Horretarako, autoreak deritzon kontsumo solidarioa kontsumo-jarduera guztietan egin behar da.

Kontsumo solidarioa gaur egun indarrean dagoen kontsumo alienatuaren eta kontsumorako ondasun kopurua maximizatzea helburu duen kontsumo konpultsi-boaren ideiei kontrajartzen zaie. Eredu horiek lukuru kapitalista bermatzen dute, eta ekoizpen-zirkuitu kapitalista itxi. Aldiz, kontsumo solidarioa ongizate pertsonala zein kolektiboa bilatzen duen eredu litzateke (Mance, 2009: 87). Hots, behar propioak asetzen dituen, besteen ongizatea hobetzen duena (ekoizten, banatzen eta merkaturatzen duten langileena), ingurumen-iraunkortasuna bermatzen duena, etab. Berez, nahiko argi ikusten da autorearen obran zehar, naturaren, gizartearen eta ekonomiaren arteko interkonexioak sistema banaezin eta konplexu gisa ulertzen dituela, eta, ondorioz, batean gertatzen denak besteetan eragina duela. Eta beraz, kontsumo-jarduera bakoitzak dituen eraginak —langileen gain, gizartearen

gain, ingurumenaren gain...— kontuan izatea beharrezkoa da. Hortaz, lankidetzaren solidarioan oinarritutako sareen eredia honetan datza: kontsumo-jarduera guztietan sare hauetan ekoiztutako produktu eta zerbitzuei lehentasuna ematean. Izan ere, nahiz eta produktu horiek sare kapitalistetan egindakoak baino prezio altuagoa izan dezaketen (alabaina, kontrako ideia ere defenda daiteke, prezioa lanaren arabera ezartzen delako, eta ez dagoelako mozkinak justifikatzen dituen plusbalio edo metaketa kapitalistarak; antolakundearen jabegoa langileek eurek dutelako), sare solidario hauetan ekoizten diren produktu eta zerbitzuek kontsumo solidarioaren oinarriak betetzen dituzte (Mance, 2008: 28).

Egiturari dagokionez, lankidetzaren sare solidarioak eragile ezberdinez osatuta daude, eta horiek, argi dago, sare-egitura hartzen dute. Hots, lankidetzaren sare solidarioak hainbat unitateren —zelulen, autorearen terminologiari jarraituz— arteko artikulazioak dira, eta, zenbait konexioren bitartez, elementuak trukutzen dituzte. Hala, elkar indartzen dute eta unitate berrietan biderka daitezke. Era berean, zelula horiek multzo osoa indartzen dute, eta hori geroz eta indartsuagoa den heinean, zelula bakoitza ere indartsuagoa izango da. Hau da, nolabaiteko zirkulu bertutetsuak sortzean datza, zeinak indartzen diren heinean unitate berriak sortu eta oreka iraunkorrean mantendu ahal diren. Hala ere, sarearen helburua ez da lurralde ezberdinetara zabaltzea. Baizik eta sareen eragin-eremua ezaugarri sozial, politiko eta kultural berdinak partekatzen dituen lurralde batera mugatzen da. Beste lurraldeetan dena den, sare propioa gara dezaten lagunduko lukete, eta bi sareak konektatzen dituen sare orokor baten bitartez elkarlana bultzatu daiteke. Modu horretan, Mance-k (1999; 2008) dio globalizazio kapitalistari nazioarteko lankidetzaren solidarioan oinarritutako sareen bitartez alternatiba globala sor dakiokoela.

Sare hauetan eragiten duten eragileek, edo deitu diegun moduan, zelulek, izaera ezberdinak izan ditzakete. Hau da, sareen parte izan daitezke ekonomia solidarioaren logikan lan egiten duten kooperatibak, laneratze-entresak, elkarteak, finantza-entitate etikoak, GKEak, herri-mugimenduak, kontsumitzaile indibidual edo kolektiboak eta bestelako eragile sozial eta politikoak. Modu horretan, sareak gutxienez hiru esparrutan izango du eragina: ekonomikoan, sozialean eta politikoan.

Mance-k (1999; 2004; 2008), dena den, garrantzi handia ematen dio sarean egiten den ekoizpen eta kontsumoari. Autorearentzat, sare solidarioaren logikatik begiratuta, ekoizpen-zelula bakoitza kontsumo-zelula bat da lehendabizi; eta horren inguruan konektatzen dira ekoizpen- eta kontsumo-mugimenduak. Horrela, azken kontsumitzaileak eskatutako kalitatea lortzeko, sare guztiaren ekoizpen-prozesua hobetzera bultzatzen du; bidean zelularik galdu barik. Izan ere, zelularen bat bidean eroriko balitz, sare osoa ahulduko luke; sarearen ekoizpena eta eskaria murriztuz.

Ekoizpen eta lan-harremanei dagokienez, esan bezala, ekonomia solidarioak pertsonak kapitalaren aurrean jartzen ditu (Pérez de Mendiguren *et al.*, 2009; REAS, 2011; Askunze, 2013). Horrek logika kapitalistarekin talka egiten du. Izan ere, azken horrek, langileak mozkinak maximizatzeko ekoizpen-faktoretzat hartzen ditu; non aparteko mozkinak lortzeko eta, beraz, mozkinak maximizatzeko adina langile kontratatuko diren. Enpresa kapitalistetan, jabegoa kapital-ekarpenari lotuta dago,

eta erabakitze-prozesuetan parte hartzeko eskubidea horren arabera izango da. Hortaz, enpresa horietako partaidetza saleros daiteke, eta, beraz, ez da egon behar jabegoa eta ekoizpen-prozesua lotzen dituen harremanik, jabe kapitalistei metaketa ahalbidetzen dieten dibidendu edo interesak izan ezik. Ekoizpen-ziklo bakoitzean metaketa ahalbidetzeko, etengabe hazi behar du enpresa kapitalista batek. Horrenbestez, helburu bakarra hori bihurtzen da: hazkundera. Ekoizpen-prozesu horietan sortzen diren lan-harremanak helburu horren zerbitzuan jartzen dira, eta, beraz, baliabide guztiak, langileak barne, hazkundera lortzeko lanean jartzen dira. Logika horretan, harreman pertsonalak despertsonalizatzen dira, objektu edo ekoizpen-faktore gisa kontsideratuak direlako (Coraggio, 2004). Enpresa kapitalistaren arrazionaltasuna, beraz, baliabideak kapitalaren ugalketaren zerbitzuan jartzea da; horregatik esan daiteke enpresa kapitalista dela kapitalaren eta haren ugalketaren inguruan eraikitzen den enpresa.

Ekonomia solidarioaren logikan, aldiz, elkarlanean oinarritutako eta irabazi-asmorik gabeko enplegu autonomo, autokudeatu eta burujabea sortzen da. Lana, baliabide zentrala bihurtzen da, pertsonen bizi-kalitatearen oinarritzko elementutzat hartzeaz gain, komunitatean parte hartzeko modutzat ere hartzen delako. Izan ere, gizartearen benetako beharrak asetzen dituzten ondasun eta zerbitzuak ekoiztean, langileen gaitasun sortzaileak garatzeaz gain, lanaren baliagarritasun soziala agerian geratzen da. Alabaina, Razetok (2017) dioten moduan, gizarte kapitalistan nagusi den soldatapeko lanak ez ditu aurreko ezaugarriak betetzen. Izan ere, soldatapeko lana kapitalaren edo estatuaren menpekoa da, eta langileak, beren enplegu-emaitzen menpekoak. Horrela, lana, enplegua izatera murriztu da, eta, beraz, langileek berezkoa duten merkantzia instrumentala izatera igaro da.

Horrenbestez, ekonomia solidarioan aurrera eramaten den lanak, eta, beraz, lankidetzaren sare solidarioen bitartez saretzen denak, aipatutako ezaugarriak ditu: autonomia da, ez dagoelako bestelako enpresa edo erakunde baten menpe; autokudeatua da, langileak eurak direlako ekoizpen-baliabideen jabeak eta demokratikoki erabakitzen dituztelako hartu beharreko neurriak; eta burujabea da, batetik, langileek eurek daukatelako euren lanaren etorkizunaren gain erabakitzeko aukera, eta, bestetik, lanari dimentsio ezberdinak aitortzen zaizkionez (pertsonala, soziala, politikoa, ekonomikoa, kulturala, ingurumenekoa), pertsonen gaitasunak garatzea ahalbidetzen duen elementua bihurtzen delako. Gainera, elkarlanean edo/eta interkooperatzean egiten den lana, Laville eta Jane-k (2009) dioten moduan, jarduera ekonomikoa, beste batzuekin partekatutako lanaren adierazpena izango da. Hots, lankidetzan eta komunikazioan oinarritutako sozializazio-dinamikak bultzatzeko elementua izango da lana. Beraz, ekonomia solidarioaren markoan dagoen ekimen bat aurrera eramateak duen oinarri militanteaz gain, langileak euren lanaren jabe izateagatik, euren lanaren gaineko erabakiak hartzeko gaitasunagatik, sozializatorako elementua izateagatik, lan burujabearen duintasuna eta motibazioa berreskuratzegatik eta abar, beste modu batean lortuko ez lituzketen abantailak lortzen dituzte (Gaiger eta Da Silva, 2011). Hurrengo taulan, ekonomia solidarioaren gutunak aitortzen dituen lanaren dimentsioak laburbiltzen dira (REAS, 2011: 4-5):

1. taula. Lanaren dimentsioak ekonomia solidarioaren ikuspegitik.

Lanaren dimentsioa	Azalpena
Pertsonala	– Pertsonak jarduera ekonomikoaren erdigunean dira eta haien gaitasunak garatzea ezinbestekoa da (pentsatu, sortu, taldean lan egin...). Lana gainera, pertsonen gizarteratzerako faktore bat ere bada, baita autoestimua oinarri bat ere, bizitzaren dimentsio guztiekin zerikusia duena.
Soziala	– Lana komunitatearen beharren mesedetan jarriz, haren baliagarritasun soziala agerian geratzen da.
Politikoa	– Pertsona guztiek lana aurrera eramateko baliabideak lortzeko aukera izateko eta lanaren oinarritzko eskubideak izateko eskubidea daukate. – Langileen eta jendarte zibilaren parte-hartzea ekoizpen-baliabideen jabegoan eta funtsezko erabakietan. – Ekonomia solidarioko langileek ekoiztu behar denaren planifikazioan parte hartzeko eskubidea.
Ekonomikoa	– Behar ekonomikoak asetzen dituzten baldintza duinak eta kalitatezko lana izango da. – Bidezko lan- eta truke-harremanak sortuko dira; lankidetzan oinarrituta eta ez lehian.
Kulturala	– Lanaren aurreko dimentsioak barneratuko dira lanaren izaera juridikoa edo administratiboa edozein izanda ere. Enplegua lan mota bat besterik ez da.
Ingurumenekoa	– Ondasun eta zerbitzuak ingurunearekiko era arduratsuan ekoiztuko dira.

Iturria: REAS (2011: 4-5). Moldapen propioa.

Bestalde, sarean egiten den kontsumoaren aldetik, Mance-k (2004: 358; 2009: 87) bi motatako kontsumoa antzematen du: kontsumo produktiboa eta amaierako kontsumoa. Biak, dena den, aipatutako kontsumo solidarioaren logikan barneratzen ditu. Amaierako kontsumoa beharrak asetzeko beharrezko kontsumoa litzateke, eta kontsumo produktiboa, aldiz, sarean aurrera eramaten den ondasun eta zerbitzuen ekoizpenerako beharrezko kontsumoa da. Sarean dauden zelula guztiek bi motatako kontsumoa aurrera eramaten dute. Izan ere, zelula bat ez da gai amaierako kontsumoa eta kontsumo produktiboa asetzeko behar duen guztia ekoizteko. Eta, beraz, sarea indartu eta hedatu ahal izateko, bertan ekoizten diren produktu eta zerbitzuak zelula ezberdinetan dibertsifikatzera jo behar dute, zelula guztien amaierako edo kontsumo produktiboaren geroz eta eskari handiagoa ase ahal izateko. Joera honen bitartez, gainera, sarea hazi eta bere burua berrelikatzen du, bere beharrak asez, eskari-ziklo berri bat sortzen duen heinean (Mance, 2008).

Hau da, kontsumo produktiboa honetan datza: ekoizpenerako beharrezkoak diren hornikuntzak (lehengaiak, baina baita beste zerbitzuak ere, hala nola banakuntza

edo finantzaketa) erosteko edo kontratatzeko orduan, sarean eskaintzen diren etik kontsumitzean, sareko zelulen arteko interkooperazioa sustatuz. Ildo horretan, Laville eta Jane-k (2009: 191-192) ekonomia solidarioaren antolakundearen arteko interkooperazioa aztertzen dutenean, hiru mailako interkooperazioa antzematen dute. Lehenik, orain aipatu duguna legoke, hots, ekoizpen-zikloan beharrezkoak izan diren hornikuntza-, banakuntza- edo/eta finantzaketa-zerbitzuak sareko beste erakunde bati erosi zaizkionean. Hori gara daiteke, adibidez, zelulen arteko elkarlan jarraituak eman arte. Hau da, ez da bakarrik hornitzaileak sarean aurkitzea, baizik eta epe luzerako proiektu partekatuak aurrera eramatea. Bigarren mailakoa legoke sareko jarduera produktiboagatik sortzen diren soberakinen zati bat zelula berriak sortzera bideratzen denean. Lan horretarako, sarean dauden finantza-entitateak izan daitezke beharrezkoak finantzaketa-fluxuak kanalizatzeko orduan. Eta azkenik, hirugarren maila legoke sareak hain dentsuak direnean, non posible baita bertan ekintza ekonomiko gehienak aurrera eramatea.

Sarearen hazkunderaren eraginez sortzen diren zelulei dagokienez, sarearen beharretara egokitzen badira, aipatutako dibertsifikazioa lortuko litzateke. Hau da, sarearen soberakinen bitartez sortzen diren zelula berriak sareko barne-kontsumoaren beharrak asetzera bideratu daitezkeelako. Hots, soberakinekin sarea hazteko estrategikoak diren sektoreak lehenets daitezke. Ildo horretan, Mance-k (2008) zelulen sorkuntzarako arrazoi nagusietakotzat antzematen du azkenengo hori. Eta horrez gain, beste hiru arrazoi azpimarratzen ditu: lehena, bat-bateko sorkuntza litzateke eta ekimen solidario baten alde mugitzen diren pertsona talde batek sortutako antolakundeak lirateke; bigarrena, autoreak «fisis-prozesua» deritzona litzateke, zeina produktu edo zerbitzu baten eskaria oso handia denean gertatzen den, eskari hori asetzeko zelula berriak sortzean. Baina, baita ere, antzeman ditzakegu zelula batzuk oso handiak direnean eta zelula txikiagotan zatitzen direnean. Kasu horretan, sarearen botere-harremanak deszentralizatzen dira eta ez da sortzen zelula handi baten dependentziarik. Autoreak antzematen duen azkenengo arrazoa ematen da logika kapitalista duen enpresa batek ekonomia solidarioarako konbertsioa egiten duenean. Adibidez, enpresa berreskuratuen kasuetan lan-sozietateen bitartez.

Azkenik, amaierako kontsumo solidarioak lotura handia erakusten du gure testuinguruan deritzogun kontsumo arduratsuekin. Kontsumo arduratsuz hitz egiten dugunean, oro har, kontsumitzaileek aurrera eramaten duten kontsumo pribatuaren ondorio publikoak kontuan hartzen dituztenean egiten den kontsumoaz ari gara (Webster, 1975). Horrela, kontsumitzaileek gizartean eta ingurumenean efektu positiboa (edo ez hain negatiboa) eragiten duten produktu edo zerbitzuak lehenesten dituzte, efektu kaltegarriak saihesteko eta efektu onuragarriak ahalik eta gehien handitzeko. Hau da, esan dugun moduan, ez du soilik ongizate pertsonala bilatzen, baizik eta produktu edo zerbitzu horiek ekoizten eta merkaturatzen dituzten langileen ongizatea zein ekosistemen oreka zaintzen duen ongizate kolektiboa ere bilatzen du (Mance, 2009: 88). Izan ere, kontsumoa, ekonomia kapitalistari sostengua ematen dion hanketako bat da, eta egun indarrean dauden kontsumo-praktikek eredu kapitalista erreproduzitzen dute. Logika horretatik ateratzea, eta ekonomia solidarioaren logikan dauden ondasun eta zerbitzuak kontsumitzea beraz, ekintza ekonomiko bat baino gehiago da: ekintza politikoa da. Ildo horretan,

kontsumoaren ekintzak boterea ematen dio kontsumitzaileari, eta horren bitartez, langileen esplotazioa, ekosistemen suntsiketa, aberastasunaren kontzentrazioa edo bazterketa soziala, besteak beste, babestea edo ez babestea erabaki dezake. Ekonomia solidarioak, aurrekoen ordeztu, kontsumo ekologikoa, lokala, bidezkoa eta kooperatiboa aldarrikatzen du (Lema, García eta Muñoz, 2015).

Laburbilduz, kontsumo solidarioaren aldeko konpromisotik sortzen diren ekoizpen- eta kontsumo-zelulek osatutako sare dentsuak lirateke. Hau da, bizitzaren ugalketa hedatua sustatzeko, eta, beraz, naturaren iraunkortasuna eta kolektibitatearen ongizatea lehenesten dituen ekoizpen- eta kontsumo-eredu baten alde askatasunez hartutako erabaki batetik sortzen diren eragile anitzen sareak lirateke. Eta bertan sortzen diren elkarrekintza ezberdinen ondorioz, beharrak ezagutu eta beharrok asetzeko beharrezko ondasun eta zerbitzuak sarearen bitartez ekoiztu eta trukatzeko ahalbidetzen dute; nolabaiteko planifikazio parte-hartzailearen bitartez. Gainera, sarean zabaltzen diren elkartasun, elkarrekikotasun eta autokudeaketazko logikei garrantzi estrategiko handia eskaintzen zaie (Mance, 2008; Razeto, 2017), sareari egonkortasuna eta erresilientzia-gradu handia eskaintzen dizkiotelako eta haren garapena ahalbidetzen dutelako. Adibidez, krisi-testuinguruetan. Modu horretan gainera, merkatu kapitalistaren logika lehiakorren aurrean babesteko aukera handiagoa dute.

4. Merkatu soziala

Jatorrian, merkatua, gizakion beharrak asetzen zituzten produktuak salerosten ziren tokia zen. Kantitate txikietan eta adostutako prezioetan. Grezian adibidez, hirietako erdigunean zegoen espazio publikoan kokatzen zen merkatua, agoran. Bertan, herriko batzarrak ere ospatzen ziren, eta, beraz, paradoxikoa badirudi ere, hasieran gobernu eta demokraziaren ideietatik hurbil sortzen den instituzioa da. Alabaina, burgesia handiaren jaiotzearekin eta estatu merkantilistaren laguntzarekin, merkatua esku ikusezinaren mekanismo bihurtu zen (Lisboa, 2004).

Gaur egun, edozein ekonomia-eskolatan irakasten den merkatuaren definizioak honakoa dio: erosle eta saltzaileen arteko interakzioen ondorioz trukatu diren ondasun eta zerbitzuen prezioak ezartzen dituen mekanismoa da merkatua (Samuelson eta Nordhaus, 2005: 25). Kontsumitzaileek ondasun edo zerbitzu baten eskaria handitzen badute, prezioa handituko da eta ekoizleek eskaintza handitzeko seinalea izango da, berriz ere oreka lortu arte. XIX. mendean sortutako ekonomia neoklasikoak, gaur egungo ikuspegi ekonomiko ortodoxoa gorpuzten duenak, merkatu aske eta autorregulatuaren eraginkortasuna defendatzen du baliabideak esleitzeko orduan (ikus, Samuelson eta Nordhaus, 2005: 25-29). Alabaina, oreka orokorraren teoria individualismo metodologikoan oinarritzen da banakoen testuingurua kontuan izan gabe, eta *homo economicus* deritzogun subjektu kalkulatuzaile, berekoi, lehiakor, utilitarista eta arduragabearen arrazionaltasuna unibertsala kontsideratzen da, horri suposatzen zaizkion jokabideak gizarte osoaren jokabideetara estrapolatuz (Coraggio, 2009; Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015). Gehiago izatea, gutxi izatea baino hobea delako premisaren pean. Laville-

rentzat (2004) ekonomiaren irakurketa horrek zenbait muga erakusten ditu. Izan ere, soilik merkatuan gertatzen dena hartzen da ekonomiatzat, sektore publikoaren zati handi bat, zaintza-lan ez-ordainduak, lan boluntarioa eta abar analisi ekonomikotik baztertuz. Gainera, merkaturia autorregulatzeko gai den elementu gisa identifikatzen du, eta, beraz, hura erregulatzeko duen edozein egitura edo instituzio sozialetatik aske. Eta azkenik, merkaturia jarduten duen enpresa modernoa enpresa kapitalistarekin identifikatzen du, analitiko baztertuz erakunde ekonomiko ez-kapitalista oro (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015: 130).

Ekonomia solidarioak, aldiz, antolakuntza-eredu askotarikoak onartzen dituen ekoizpen arrazionala defendatzen du. Hau da, sortutako aberastasunaren banaketa eta birbanaketa bidezkoagoa defendatzen du, eta antolakunde ez-kapitalisten papera aldarrikatzen du ekonomian. Hau da, beste ekonomia bat egin daitekeela defendatzen du, beste logika batzuen arabera funtzionatzen duena, non jabegoa kolektiboa den, kontsumoa arduratsua den eta erabakitze-prozesuak demokratikoak diren (Coraggio, 2016).

Eredu ekonomiko solidario horren markoan merkatu soziala kokatuko litzateke. Askunze eta Díez-entzat (2019), merkatu soziala merkatu kapitalistarekiko kritikoa den eta hori eraldatu nahi duen estrategia da; ekoizpen-kateari zein ziklo ekonomikoan parte hartzen duten eragileei alternatiba integrala ematea bilatzen duena ekonomia solidariotik. Horretarako, ekonomia solidarioaren logikan lan egiten duten ekoizpen-, finantza-, banakuntza- eta kontsumo-zelulak harremanetan jartzen ditu. Horrenbestez, kapitalak zentraltasuna ez duen antolakundez osatuta dago, non lankidetzan oinarritutako lan-formak nagusi diren.

Merkatu soziala, beraz, ekonomia solidarioak bidezkoagoa, demokratikoagoa eta solidarioagoa den merkatu bat bultzatzeko duen lanabesa da. Ekonomia solidarioaren logikan lan egiten duten esperientzia ezberdinak batzen dituen, ekoizleak eta kontsumitzaileak harremanetan jarriz eta haien arteko sare bat sortuz. Horrenbestez, merkatu soziala ekonomia solidarioaren printzipioak praktikan jartzen den espazioa da. Gainera, logika berean diharduten esperientziek elkar ezagutu eta aliantzak ehundu ditzakete bertan (Askunze, 2013).

Askunze-rentzat (2013:114), merkatu sozialak sei ezaugarri nagusi ditu:

1. Merkatu kapitalistak dituen balioetatik urruntzen den merkaturia litzateke. Ekitatean, gardentasunean, demokrazian, elkartasunean, parte-hartzean, ingurumen-iraunkortasunean, gizarteratzean eta abar oinarrituta.
2. Ekonomia solidarioko entitateen kooperazioan oinarrituko da, ekonomikoki bideragarriak izateko.
3. Ekoizle txikiek beren produktuen salmenta eta banakuntza kontrolatzen duten merkaturia da.
4. Gizarte-konpromisoan oinarrituta kontsumi daitekeen espazioa da. Kontsumitzaileen esfortzuak batzen dituen merkatu sozialaren izaera eraldatzailea handitzeko.

5. Ekonomia solidarioaren sektorea bultzatuko duen merkatua da. Laneratze-enpresak, gizarte-konpromisoa duten entitateen zerbitzuak, bidezko merkataritza, elikadura-burujabetza, bertako produktu ekologikoak, finantza eta aseguru etikoak, eta abar.
6. Ekonomia solidarioak eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak gizarteari ikusarazteko lagungarria izango den merkatua da.

Eta aldi berean, merkatu soziala bezalako ekimen bat gaur egungo ekonomian hazi ahal izateko, Crespo eta Sabín-ek (2014) hiru baldintza bete behar direla diote. Lehenik, beharrezkoa da herri-mugimendu zabal eta trinkoa, ekonomia eta merkatua bizi-baldintza hobetoagoak, aberastasunaren banaketa eta iraunkortasuna lortzeko funtsezko espazio bat bihurtuko dituen. Bigarrenik, ekoizpen-, komertzializazio-, finantzaketa- eta kontsumo-ekimen ezberdinak artikulatuko dituzten lanabesak teorikoki deskribatu eta praktikoki bultzatuko dituen lurraldeko antolakunde baten ezarpena. Azkenik, eraldaketaren protagonista aktibo sentitzen diren kontsumitzaileen masa kritikoa. Azkeneko baldintza horri lotuta, merkatu sozialak duen erakusleho nagusia ekonomia solidarioaren feriak lirateke. Izan ere, feria horiek, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko espazioa izateaz gain, proiektu ezberdinak ezagutarazteko eta proiektu horietan diharduten pertsonak elkar ezagutzeko aukera ematen dute. Beraz, proiektuek, pertsonak eta ideiek bat egiten duten espazioak dira feria horiek. Parte-hartzaileen ahalduntzea, elkar ezagutzea eta berrespena bilatzen duten topagune jendetsuak izanik, kolektiboaren indarra sentitzeko baliagarriak dira. Autore horientzat, merkatu soziala eraldaketarako gaitasun handia duen ekimena da. Izan ere, ohiko merkatuen helburuen iraulketa dakar; mozkin indibidualen maximizatzea izatek, haren parte direnen ongizate kolektiboa bilatzera igartzen delako. Konfiantza, hurbiltasunean eta elkarrekikotasunean oinarritutako merkatua izanik gainera, merkatuaren eta erlazio pertsonalen desmerkantilizazioa dakar. Horrela, merkatu sozialean komunitatea eta praktika komunitarioak indartzen dira.

Helburu estrategikoei begira, Askunze eta Díez-ek (2019: 11-12) bost zerrendatzen dituzte. Hauek dira: ekonomia solidarioaren balio eta praktika eraldatzaileak gizartean ikusaraztea; geroz eta eragin ekonomiko handiagoa izatea; eragin politikoa izatea; ekonomia solidarioaren eta bestelako eragile eraldatzaileen arteko harremanak jostea eta onarpen handiagoa lortzea, eta, azkenik, ahalik eta behar gehien asetzen duen komunitate alternatiboa izatea.

Merkatu sozialaren barne-jokabideak arautzen dituzten printzipio gidariak bestalde, ekonomia solidarioaren erroan dauden lankidetzak eta elkarrekikotasuna izango dira; merkatu kapitalistetan dagoen lehiakortasunaren aurrean. Horiek, gorago azaldu ditugun interkooperazio-praktiken bitartez aurrera eramaten dira. Eta beraz, azaldu dugun moduan, merkatu soziala osatzen duten antolakunde baten baterako hazkundea gerta daiteke. Modu horretan, ziklo ekonomiko guztia ixteko aukera eman behar du merkatu sozialak. Ekoizpen-, banakuntza-, kontsumo- eta finantzaketa-sare alternatibo bat delako, non elkarlanaren bitartez, merkatu kapitalistaren eredu lehiakorra gauditu nahi den. Ildo horretan, merkatu sozialak prozesu ekonomiko bakoitzerako biltzen dituen proposamen alternatiboak eta haien ezaugarri nagusiak erakusten dituen honako taula osatu dugu.

2. taula. Merkatu sozialak biltzen dituen proposamenak eta haien ezaugarri nagusiak prozesu ekonomikoetarako.

Prozesu ekonomikoa	Proposamen alternatiboa	Ezaugarri nagusiak
Ekoizpena	<ul style="list-style-type: none"> – Lanearn oinarritutako ekonomia 	<ul style="list-style-type: none"> – Lanaren dimentsioak aitortu: lana enplegua baino gehiago da eta dimentsio pertsonala, soziala, politikoa, ekonomikoa eta kulturala, ingurumenekoa dauka. – Lanari zentralitatea eman: lana pertsonen funtsezko elementutzat kontsideratzen da eta ekonomian eta gizartean parte hartzeko bidea da. – Lan kolektibo eta burujabea: langileak eurak dira euren lanaren jabeak.
Banakuntza	<ul style="list-style-type: none"> – Bidezko merkataritza – Zirkuitu ekonomiko laburrak 	<ul style="list-style-type: none"> – Bidezkoagoak diren nazioarteko merkataritza-harremanak: bidezko merkataritzaren bitartez Hegoaldeko herrialdeetako langileen baldintzak bermatu nahi dira. – Tokiko ekonomiaren indartu: zirkuitu ekonomiko laburrek, ingurumenaren aldetik iraunkoragoak izateaz gain, tokiko ekonomien eta komunitateen indartzea dakarte.
Kontsumoa	<ul style="list-style-type: none"> – Kontsumo arduratsua 	<ul style="list-style-type: none"> – Ongizate pertsonala zein kolektiboa bilatu: behar propioak asetzen diren bitartean, besteren ongizatea bermatzen duen eredua da. – Kontsumoaren izaera politikoa aldarrikatu: kontsumoaren indar eraldatzailea aitortuz, gure kontsumoaren ondorio publikoak kontuan hartzen dituen kontsumitzeko eredua sustatzen da.
Finantzaketa	<ul style="list-style-type: none"> – Finantza etikoak 	<ul style="list-style-type: none"> – Ez dira espekulatiboak: «ekonomia erreala» sustatzen duten bitartekotza finantzariorako antolakundeak dira. – Kreditu-eskubidea bermatzen dute: finantza-sistema tradizionaletik kanpo dauden sektore herrikoiek jarduera produktibo bat aurrera eramateko, kreditu-eskubidea bermatzen da. – Finantzaketarako irizpideak: armagintza, kontaminazio handiko industriak eta abarreko sektoreetan ez dute inbertitzen. Aldiz, eragin positiboa duten sektoreak lehenesten dituzten antolakundeak dira.

Iturria: Geuk egina.

5. Lankidetzaren solidarioa Euskal Herriko merkatu sozialean

5.1. Euskal Herriko merkatu soziala

Euskal Herriko merkatu soziala, eta estatu-mailako beste merkatu sozialak, REASen azken hamar urteetako norabide estrategikoaren oinarritzko elementua izan da; estatuko lurralde ezberdinetan merkatu sozialak ezartzea helburu izan duena. Lurralde bakoitzean alde aurretik existitzen ziren, baina ez zuten elkar ezagutzen edo lankidetzaren harreman garatu gabeak zituzten ekonomia solidarioko antolakundeak biltzen eta saretzen dituen subjektu ekonomiko sozial eta politiko gisa (Askunze eta Díez, 2019).

Horrenbestez, merkatu sozialak ekonomia solidarioaren baitan gertatzen diren esperientziak dira, ekonomia solidarioaren gutunean biltzen diren printzipioei jarraitzen dieten eragile ezberdinez osatutakoak. Mance-k (2008: 28) dioen moduan, gizarte postkapitalista baten eraikuntzan lan egiten duten antolakundeak biltzen ditu, eta, beraz, ez dugu nahastu behar, adibidez, nolabaiteko kooperatibismo kapitalista batekin. Gizarte-eraldaketa helburu duten merkatuak dira, eta egia bada ere ekonomia sozialaren eta ekonomia solidarioaren arteko harremanak geroz eta garatuago daudela, oraindik ere ekonomia sozialak ez du ekonomia solidarioaren printzipio askorekin bat egiten. Adibidez, mozkin-asmoaren inguruan, edo, kasu askotan, ingurumenarekiko konpromisoaren inguruan eta lehiakortasunean oinarritutako jokabideak lankidetzaren oinarritutakoengatik ordezkatzeko orduan. Ildo horretan, eta lehenago aipatu dugun moduan, ekonomia sozialak merkatu globaletan lehiatzeagatik izan duen isomorfismo-prozesua nabaria izan da kasu askotan, zeinetan merkatu kapitalistak berezkoak dituen jokabide batzuk barneratu dituen bere logiketan. Horregatik, ikusiko dugunez, Euskal Herriko ekonomia sozialaren erreferentziazko enpresa edo taldeak ez daude Euskal Herriko merkatu sozialean. Nahiz eta, esan dugun moduan, merkatu sozialek kanpo, elkarren arteko elkarlana geroz eta handiagoa den. Hala ere, horrek ez du merkatu sozial guztietan horrela gertatu beharrik. Merkatu sozial bakoitza bere testuingurura hobeto egokitzen diren prozedurak eta estrategiak aplikatzeko gai baita, eta erabakiak hartzeko askatasuna baitu. Eta are gehiago, ekonomia solidarioak etorkizunean errealitate sendoagoa izan nahi badu, ekonomia sozialarekin aliantzak ehuntzeko aukera esploratzen jarraitu beharko du (Pérez de Mendiguren eta Etxezarreta, 2015). Zentzu horretan, azkeneko urteetan indartzen ari den Ekonomia Sozial eta Solidarioaren (ESS) terminoa zeresan handia izaten ari da. Hala ere, ez luzatzearen, artikulatu honetan ez diogu eztabaida horri helduko⁸.

Zehatzago, Hego Euskal Herriko, REAS Euskadik eta REAS Nafarroak bultzatutako lanabesa da Euskal Herriko merkatu soziala. Eta, nahiz eta kasu batzuetan Euskadiko merkatu sozialari eta Nafarroako merkatu sozialari erreferentzia egiten zaien banaturik, bien arteko elkarlana agerikoa (izan) da. Bestalde, Olatukoop ere barneratzen hasi da merkatu sozialean, eta gaur egun, Euskadiko merkatu sozialaren garapenean laguntzaile/bultzatzaile gisa agertzen da, bertan saretuta

8. Norbaitek ESSren inguruko eztabaidaren inguruan sakondu nahi badu, Pérez de Mendiguren eta Etxezarretaren lanean (2015) sintesi interesgarria aurkituko du.

dauden antolakunde asko Euskal Herriko merkatu sozialaren parte izanik. Gainera, sare horren eta REAS Euskadiren arteko elkarlanerako hitzarmena sinatu dute; eta elkarrekin ikus ditzakegu ekonomia solidarioaren edo ekonomia sozial eraldatzailearen inguruan Euskal Herrian antolatzen diren hainbat jardunaldi eta ekimenetan.

Zenbakiei begira, Euskadin lauorgeri antolakunde inguruk osatzen dute merkatu soziala; Nafarroan, aldiz, hogeita hamar baino gehiagok. Hurrengo taulan, Euskal Herriko merkatu sozialean jarduten duten antolakundeak agertzen dira sektore ekonomikoetan sailkatuta:

3. taula. Euskal Herriko merkatu sozialaren antolakundeak sektoreka sailkatuta.

	Sektore ekonomikoa	Antolakundeak
Euskadiko merkatu soziala (REAS Euskadi eta Olatukoop)	Elkadura eta nekazaritza	REAS Euskadi (6): EHNE Bizkaia, Ekoizan, Esnetik, Garbinguru, Goilurra, Koopera. Olatukoop (2): Boga, Elika.
	Energia eta ingurumena	REAS Euskadi (7): Berziklatu, Ekologistak Martxan, Emaús Fundación Social, GoiEner, Koopera Cáritas, Laguncar (Eusko Car Sharing Elkarte), Som Energia-Energia Gara.
	Esku-hartze soziala	REAS Euskadi (13): Agintzari, Aldauri, Agiantza, BalmasedActiva, Bidegintza, Bizitzen, Cáritas Bizkaia, Elkarbanatuz, Emaús Fundación Social, Gaztaroa Sartu, Koopera Cáritas, Sartu Álava, Sartu Erroak. Olatukoop (1): Zabalduz.
	Komunikazioa eta irudia	REAS Euskadi (6): Al Borde Films, Amaya Digital, Erreka Multimedia, Kriketa, LaBox, Liburki. Olatukoop (5): Argia, Bostok, Hiru Damatxo, Mirokutana, Tapuntu.
	Teknologia berriak	REAS Euskadi (2): Erreka Multimedia, Recicla-net. Olatukoop (4): Gisa, Izarkom, Skura, Talaios.
	Finantza etikoak	REAS Euskadi (3): CAES, Fiare Banca Etica, Oikocredit Euskadi. Olatukoop (1): Koop57.
	Higiezina	REAS Euskadi (1): Etikalia.
	Industria eta eraikuntza	REAS Euskadi (6): Beraiki99, Eureka Soluciones Adaptadas, Iturritek, Koopera Cáritas, Laiatzen, Zurtek.
	Ostalaritza eta turismoa	REAS Euskadi (4): Lapiko Catering, Restaurante Izarza, Servicios de Hostelería Peñascal, Zabaltegi.
	Merkataritza	REAS Euskadi (8): Bidebarri, Emaús Fundación Social, Kidenda, Koopera Store, Labore Txingudi, Setem Hego Haizea. Olatukoop (2): Lakari, Uztarri.

	Osasuna, hezkuntza eta zainketa	REAS Euskadi (7): Goilurra, Grupo Servicios Sociales Integrados, Ikatzbizi, Keima Animazioa, Koopera Cáritas, Koopera Social Training, Zainduz.
	Lankidetzeta eta sentsibilizazioa	REAS Euskadi (9): Cáritas Bizkaia, Economistas Sin Fronteras, Economía del Bien Común, Ekologistak Martxan, Emaús Fundación Social, Hegoa, Mugarik Gabe, Mundubat Kooperatiba, Setem Hego Haizea.
	Garbiketa- eta mantentze-lanak	REAS Euskadi (6): Berezi99, Bidebarri, Jantziprest, Koopera Cáritas, Sokaire Servicios de Limpieza, Tinko Garbiketak.
	Aholkularitza eta ikerketa	REAS Euskadi (4): ColaBoraBora, Equipare, Incyde, Sustraiak Habitat Design. Olatukoop (7): 373 Abokatuak, Aholku, Aztiker, Batura, Biantik, Farapi, Hiritik At.
Nafarroako merkatu soziala (REAS Nafarroa)	Elikadura eta nekazaritza	(3) Jauregia esnekiak, Landare, Pasta Martinelli.
	Merkataritza	(6) Eurolan, Fundación Traperos de Emaús, Landare, Setem Nafarroa, Tesos, Paris 365 denda.
	Lankidetzeta eta sentsibilizazioa	(5) Fisc, Mugarik Gabe Nafarroa, Mundubat, Ocsi, Setem Nafarroa.
	Osasuna, hezkuntza eta zainketa	(2) Arterra Bizimodu, Transforma Fundación Gaztelan.
	Komunikazioa eta irudia	(4) Txalaparta editoriala, Eurolan, Farrachucho, Heda Comunicación.
	Energia eta ingurumena	(2) Nafarkoop, Traperos de Emaús.
	Aholkularitza	(2) Gaztelan, Nommad.
	Esku-hartze soziala	(5) Eurolan, Gaztelan, Hegoak, Transforma, Traperos de Emaús.
	Ostalaritza eta turismoa	(4) Catering Paris 365, Albergue de Beire, Gure Sustraiak, Jauregia esnekiak.
	Industria eta eraikuntza	(4) Aislanat, Embeblue, Fundación Elkarte, Servicios Inserlantxo.

Iturria: Euskadiko eta Nafarroako merkatu sozialen katalogoak⁹. Moldapen propioa.

9. Euskadiko merkatu sozialaren katalogoa:

<<https://www.mercadosocial.net/sites/default/files/reaslibrary/attachments/00%20Katalogoa%202018%20DEF.pdf>>.

Nafarroako merkatu sozialaren katalogoa:

<<https://www.mercadosocial.net/sites/default/files/reaslibrary/attachments/MercadoSocial%202019%20web.pdf>>.

5.2. Euskal Herriko merkatu soziala lankidetzaren solidarioko sare bat bezala

Lankidetzaren sare solidarioen eta merkatu sozialen arteko antzekotasunak argi daude dagoeneko. Egia da ezin direla esperientzia latinoamerikarrak —batez ere brasildarrak¹⁰— Mance-k (2008) definitzen duen modu berberean Euskal Herrian ezarri, testuinguru ekonomiko, sozial, politiko eta kulturala ezberdina delako. Horregatik, lankidetzaren sare solidarioek funtsean egiten duten ekarpena geure testuinguruan aplikatzeko, ekonomia solidarioaren antolaketa eta egituraketa lurralde bakoitzaren ezaugarri eta errealitate konkretuari egokitu behar zaio.

Funtsezko antzekotasunak dena den argi daude. Adibidez, Askunze eta Díez-ek (2019:11), Mance-ren sare barneko kontsumoaren ideia antz handia hartzen duten eta merkatu sozialak jarraitu behar dituen arau edo jokabide normatiboak proposatzen dituzte:

- Sarearen osagai bakoitzak sarearen barruan ahal duen guztia kontsumitzeko konpromisoa hartzen du.
- Sarearen osagai bakoitzak sarearen barruan ahal duen guztia ekoizteko konpromisoa hartzen du.
- Sarearen osagai bakoitzak sarearekin lotutako beste ekimen batzuk sortzen lagunduko du, aurrezkiak eta soberakinak sarearen finantza-tresnetan jarrita.

Hala ere, seguru aski proposamen bakoitzaren testuinguru ekonomiko, sozial eta politikoak zehaztuta, sektore publikoarekiko garatu beharreko harreman-ereduen inguruko ezberdintasun bat aurki dezakegu. Mance-k (2008) esaten duenez, ez da beharrezkoa sektore publikoaren laguntza lankidetzaren sare solidarioak garatzeko; eta sareko barne-erresilientzia eta birsorkuntza-gaitasuna azpimarratzen du, kanpotik erator daitezkeen laguntza ezberdinen beharrez ez egoteko. Hots, sareak berezkoak dituen balio eta jokabideekin —elkartasunarekin, elkarlanarekin eta kontsumo solidarioarekin, alegia— nahikoa dela lankidetzaren sare solidario bat hazi eta sendotzeko. Aldiz, merkatu sozialen inguruko azterketak egin dituzten beste autoreek sektore publikoaren laguntza eta elkarlana aldarrikatu izan dute, batez ere kontratazio publiko arduratsuen ildotik (Lesmes eta Álvarez de Eulate, 2014, REAS Euskadi, 2016; Askunze eta Díez, 2019).

Dena den, Euskal Herriko merkatu soziala lankidetzaren sare solidario bat bezala eraiki nahi bada, oraindik erronka handia dauka barne-kontsumo produktiboari dagokionez. Izan ere, REAS Euskadiko azkenengo auditoria sozialaren¹¹ arabera, 2015etik 2018ra bitartean REAS Euskadiko¹² antolakundeek merkatu sozialean

10. Izan ere, badira sare-egituretan oinarritzen diren beste mota bateko zirkuitu laburrak, hala nola Ekuadorreko zirkuitu ekonomiko solidario interkulturalak (CESI) edo trukerako sare lokalak.

11. REAS Euskadiren 2019ko auditoria soziala (2018ko datuekin):

<https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/news_attachments/INFORME_auditoriasocial2019.pdf>.

12. REAS Euskadiko antolakunde guztiak ez dira merkatu sozialaren parte, baina merkatu sozialaren parte diren antolakunde guztiak dira REAS Euskadiren edo Olatukoop-en parte. Ezin dira lortu merkatu sozialari bakarrik erreferentzia egiten dioten datuak, eta Olatukoop-ek oraindik ez du auditoria soziala bezalako lanabesik garatuta. Dena den, REAS Euskadiren parte diren antolakundeen gehiengoak merkatu sozialaren parte dira.

erosten duten ondasun eta zerbitzuen kopuruaren balioa 2,9 milioi eurotik 7 milioi eurora hazi egin den arren, oraindik ekonomia solidarioko antolakundeek fakturazten dutenaren zati txikia adierazten du. Hau da, REAS Euskadiko antolakundeek fakturazioa 82 milioi eurokoa izan zen 2018an, eta horietatik, kontsumo produktiboa kontsidera genezakeena, hots, merkatu sozialeko antolakundeei erositakoa, aipatutako 7 milioi euroak izan ziren. Eta beraz, salmenten zatirik handiena amaierako kontsumora eta administrazio publikoarentzako ekoiztutako ondasun eta zerbitzuetara bideratutakoa izan zen. Erosketen bidetik, REAS Euskadiko antolakundeek 43 milioi euroko gastua izan zuten hornikuntzen erosketetan. Horietatik, aipatutako 7 milioi euroez gain, merkatu sozialek kanpo dauden baina mozkinaz besteko antolakundeak direnei egindako hornikuntzen erosketek 7,4 milioi euroko balioa izan zuten. Orokorrean, beraz, REAS Euskadiko antolakundeek egindako erosketak guztietatik % 33 (14,4 milioi euro) zirkuitu ez-kapitalistetan egin ziren.

Horrenbestez, esan dezakegu, gaur egun merkatu sozialaren egitura ekonomia solidarioa ezagutarazteko, agenda eta diskurtso politikoa sendotzeko eta elkarren arteko azaleko harremanak eraikitzeke baliagarria izan den arren, oraindik sareko barne-harreman produktiboen dentsitatea gehiago garatzeko dagoela; eta horrek izan behar duela etorkizunerako erronka handiena. Barne-kontsumo solidarioa izango delako, Mance-k (2008) esaten duen moduan, sarea egonkortzea eta haztea ahalbidetuko duena. Hala ere, ildo horretan lan handia egiten ari dela argi uzten du datuen bilakaerak.

Ez dugu esan nahi merkatu sozialak gizartera heltzeko eta, beraz, amaierako kontsumoa handitzeko norabidea baztertu behar duenik; merkatu sozialaren azkenengo helburua pertsonen beharrak asetzea baita. Baina ekonomia solidarioaren hazkunde-estrategia hartze aldera, garrantzitsua da gizartearen aurrean ikusgaitasuna lortzeaz gain, geroz eta ekoizpen-prozesu gehiago ekonomia solidarioaren logikan guztiz ekoiztu ahal izatea. Merkatu kapitalistatik aldentuta, eta beharrian guztiak asetzeko gaitasuna duten merkatu alternatiboak sortzeko.

6. Ondorioak

Desparekotasun sozialak, pobrezia, prekarietatea, ingurumen-narriadura eta abar sortzen dituen eredu ekonomiko kapitalistari alternatibak planteatzen dizkion ereduak da ekonomia solidarioa. Artikuluan zehar azaldu dugun bestelako arrazionaltasun batetik abiatzen da, bestelako espazio sozioekonomikoak eraikitzeke. Merkatu soziala espazio horietako bat da, ekonomia solidarioaren logikan dauden antolakunde eta eragileak estrategia konkretu baten inguruan artikulatzea bilatzen duena. Baina, are gehiago, merkatu soziala, ekonomia solidarioaren hazkunderako potentzial handiko estrategia ere bada.

Izan ere, ekonomia solidarioaren hazkunde auto-orekatua ahalbidetzen duten lanabesak dira merkatu sozialak. Hau da, ekonomia solidarioaren parte diren antolakundeez sortutako sare dentsuak dira, non antolakundeek arteko etengabeko berrelikadurak antolakundeak eurak eta sare guztia hazten eta indartzen dituen.

Horregatik, merkatu sozialak ekonomia solidarioaren etorkizunerako ezinbesteko tresnak dira. Eta aldi berean, ekonomia solidarioak merkatu kapitalista eraldatu nahi badu, ezinbesteko estrategia da merkatu soziala. Gainera, oraindik ere ekonomia solidarioaren errealitatea egonkortze-bidean dago, eta, beraz, erresilientzia handiagoa eskaintzen dioten mekanismoak bilatu behar ditu.

Artikulu hau osatzen saiatu gara Mance-ren (2008) lankidetzaren solidarioan oinarritutako sareen teoriatik datozen irakaspenekin. Izan ere, merkatu sozialaren inguruko teorizazio eskasa antzeman da, eta aldi berean, autore brasildarraren teoriaren eta merkatu sozialaren esperientziaren arteko bateragarritasuna agerikoa da. Eta autore brasildarraren teoriak hainbat hutsune izan baditzake ere, haren ideien oinarritzeko elementuak merkatu sozialak indartzeko baliagarriak direla ondorioztatu daiteke. Izan ere, autoreak ez du bere teoria zentzu guztietan babesten duen ikerketa empirikorik erakusten. Gainera, zenbait pauso automatikoegiak kontsideratzen ditu. Horrez gain, edozein komunitate —eta autoreak bereziki sistema kapitalistatik baztertutakoenetan pentsatzen du— eta edozein herrialdetan lankidetzaren solidarioaren sareak eratu ahal izateko aukera dutela baieztatzen du. Gure ustez, lankidetzaren solidarioaren baten eraikuntza autoreak erakusten duen baino prozesu konplexuagoa da; lurralde bakoitzaren berezitasunei egokitu behar zaiena eta aurretiazko gutxieneko baldintza batzuk behar dituen. Hala ere, Euskal Herriko merkatu soziala errealitate bat da gaur egun, eta esan bezala, lankidetzaren solidarioaren sareen teoriak funtsean esaten duena aplikatu daiteke bertan. Are gehiago, ikusi dugu nola azken urteetan, merkatu sozialaren barne-kontsumo produktiboa nabarmen hazi egin den. Hala ere, oraindik, sektore batzuek merkatu sozialaren barnean hornikuntzak aurkitzeko zailtasunak izan ditzakete; eta beste askok, batez ere pertsonentzako zerbitzuak eskaintzen dituztenek, hornikuntza material gutxi behar dituztenez, horrek zaila egiten du kontsumo produktiboaren hazkundera. Ildo horretan, adibidez, Euskal Herriko merkatu sozialeko antolakunde ugariak esku-hartze soziala bezalako sektoreetan jarduten dutelako eman daiteke.

Era berean, merkatu sozialak berezkoa duen potentzial eraldatzailea azpimarratu behar da. Izan ere, brujabetza ezberdinak berreskuratzeko tresna izateaz gain, lurralde bateko ekonomia solidarioa hedatzeko lanabes boteretsua da. Eta diskurtso politikoa esperientzia eraldatzaileen bitartez berrestez gain, merkatu soziala bera eragile sozial garrantzitsua bihurtu daiteke ekonomia lokalak dinamizatzeko orduan, eta, beraz, tokiko garapen alternatibo baterako dimentsio ekonomikoa eraikitze-bidean. Izan ere, ikusi daiteke bizitzaren alor ezberdinetako beharrak asetzeko gaitasuna duela, eta oraindik garapen-bidean dagoen arren, bestelako parametroetan ekoiztu eta kontsumitu nahi duen edozeinentzako ekosistema egokia osatzen du. Horregatik ere, etorkizunari begira, tokiko ekintzaitza sozial eta kolektiboa sustatzeko programa ezberdinekin (adibidez, kooperatiba¹³ edo Euskal Herriko eskualdeetan zehar dauden tokiko garapenerako agentzietako ekintzaitza-programak) nolako artikulazioa erakusten duen ikustea interesgarria izango da.

Hala ere, merkatu sozialak dimentsio ekonomikoan baino harago eragiten du. Azken finean tokiko ekonomia eraldatzaileen inguruan diharduten antolakunde,

13. Kooperatiba (www.kooperatiba.eus) ekintzaitza kooperatibo eta kolektiboa sustatzeko programa da.

eragile eta pertsonen topagune ere bada, eta, beraz, indartze komunitariorako espazioa. Izan ere, hiritartasun aktiboko espazioak dira, zeinak esperientzia eraldatzaileak pentsatzeko laborategi demokratikoak bezala uler ditzakegun. Horrenbestez, aldaketa sozioekonomiko handia beharrezkoa duen garai honetan (2008ko krisitik, aldaketa klimatikotik, zaintzaren inguruko krisitik, COVID 19aren krisitik eta abarretatik eratorritakoa), harreman sozialak birpentsatzeko espazioa ere izan daitezke.

7. Bibliografía

- Arruda, Marcos (2004): «¿Qué es la Economía Solidaria? El renacimiento de una sociedad humana matrística», *Ecología Política*, 27, 71-76.
- , (2010): «Potencialidades de la Praxis de la Economía Solidaria», *Ponencia presentada en el Laboratorio Internacional Estrategias alternativas al desarrollismo*. Buenos Aires.
- Askunze, Carlos (2013): «Más allá del capitalismo alternativas desde la Economía Solidaria», *Documentación social*, 168, 91-116.
- Askunze, Carlos eta Díez, María Angeles (2019): «Merkatu soziala: Ekonomia Solidarioa hedatzeko estrategia», *Hegoak zabalduz*, 15, 1-19.
- Carrasco, Cristina (2009): «Tiempos y trabajos desde la experiencia femenina», *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, 108, 45-54.
- Coraggio, Jose Luis (2004): «Economía del trabajo», in A. Cattani (ed.), *La otra economía*, Argentina, 151-163.
- , (2007): «Una perspectiva alternativa para la economía social: de la economía popular a la economía del trabajo», in J.L. Coraggio (ed.), *La Economía Social desde la periferia. Contribuciones latinoamericanas*, Buenos Aires, Altamira, 165-194.
- , (org.) (2009): *¿Qué es lo económico? Materiales para un debate necesario contra el fatalismo*, Editorial Abya-Yala, Buenos Aires.
- , (2016): «La economía social y solidaria (ESS): niveles y alcances de acción de sus actores. El papel de las universidades», in C. Puig (coord.), *Economía Social y Solidaria: conceptos, prácticas y políticas públicas*, Universidad del País Vasco-Hegoa, Bilbao, 17-39.
- Crespo, Blanca & Sabín, Fernando (2014): «Los mercados sociales. La economía solidaria en acción transformadora», *Documentación social*, 174, 95-116.
- Da Ros, Giuseppina S. (2007): «Economía solidaria: aspectos teóricos y experiencias». *Unircoop*, 5(1), 9-27.
- Gaiger, Luiz Inácio & Da Silva, Andressa (2011): «O diferencial do empreendedorismo solidário», *Ciências Sociais Unisinos*, 47, 1, 34-43.
- Guridi, Luis & Pérez De Mendiguren, Juan Carlos (2014): *La dimensión económica del desarrollo humano local la economía social solidaria*, Hegoa, Bilbao.
- Guridi, Luis; Pérez De Mendiguren, Juan Carlos; Iametti, Ana; Deux, María Victoria; Vázquez, Gonzalo & Uribe, Amaia. (2011): «Experiencias de Economía Social y Solidaria: compartiendo estrategias y aprendizajes», *Papeles de economía solidaria*, 2, 1-77.
- Herrero, Yayo (2013): «Miradas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible», *Revista de Economía Crítica*, 16, 278-307
- Laville, Jean-Louis (2004): «El marco conceptual de la Economía social y solidaria», in J.L. Laville (ed.), *Economía social y solidaria. Una visión europea*, Fundación OSDE - Universidad Nacional de General Sarmiento, Editorial Altamira, Buenos Aires, 1-25.

- , (2013): «Économie sociale et solidaire, capitalisme et changement démocratique», in D. Hiez & E. Lavillunière (dir.), *Vers une théorie de l'économie sociale et solidaire*, Collection: Droit & économie sociale et solidaire, Editions Larcier, Paris, 17-32.
- Laville, Jean-Louis & Jane, Jordi G. (2009): *Crisis capitalista y economía solidaria. Una economía que emerge como alternativa real*, Icaria Editorial, Bartzelona.
- Lema, Isabel; García, Ricardo & Muñoz, Jesús Miguel (2015): «Las iniciativas de consumo responsable como espacios de innovación comunitaria y aprendizaje social», *Revista de estudios e investigación en psicología y educación*, 14, 29-33.
- Lesmes, Santiago & Álvarez De Aulate, Leire (2014): *Guía de contratación pública socialmente responsable*, REAS Euskadi, Bilbao.
- Lisboa, Armando M. (2004): «Mercado solidario», in A. Cattani (ed.), *La otra economía*, Argentina, 293-305.
- Mance, Euclides A. (1999): «La colaboración solidaria como una alternativa a la globalización capitalista» online publikazioa, berreskuratuta (2020/06/05): <<http://base.socioeco.org/docs/colaboracionsolidaria.pdf>>.
- , (2004): «Redes de colaboración solidaria», in A. Cattani (ed.), *La otra economía*, Argentina, 353-362.
- , (2008): *La revolución de las redes: la colaboración solidaria como una alternativa pos-capitalista a la globalización actual*, Itaca Editorial, Mexiko.
- , (2009): «Consumo Solidario», in A. Cattani, J.L. Coraggio & J.L. Laville (org.), *Diccionario de la otra economía*, Altamira, Buenos Aires, 76-86.
- Monzón, José Luis (2006): «Economía Social y conceptos afines: fronteras borrosas y ambigüedades conceptuales del Tercer Sector», *CIRIEC-España, revista de economía pública, social y cooperativa*, 56, 9-24.
- Monzón, José Luis & Chaves Rafael (2012): *La economía social en la Unión Europea*, Comité Económico y Social Europeo.
- Naredo, Jose Manuel (2002): «Economía y sostenibilidad la economía ecológica en perspectiva», *Polis Revista Latinoamericana*, (2).
- Núñez, Orlando (1996): *La economía popular: asociativa y autogestionaria*, Centro para la Promoción, la Investigación y el Desarrollo Rural y Social, Managua (Nicaragua).
- Orozco, Amaia P. (2006): «Amenaza tormenta la crisis de los cuidados y la reorganización del sistema económico», *Revista de Economía Crítica*, 5, 7-37.
- , (2010): «Diagnostico de la crisis y respuestas desde la economía feminista», *Revista de Economía Crítica*, 9(1), 131-144
- Pérez de Mendiguren, Juan Carlos & Etxezarreta, Enekoitz (2015): «Sobre el concepto de economía social y solidaria. aproximaciones desde Europa y América Latina», *Revista de Economía Mundial*, 40, 123-143.
- Pérez de Mendiguren, Juan Carlos; Etxezarreta, Enekoitz eta Guridi, Luis (2009): «Economía Social, Empresa Social y Economía Solidaria diferentes conceptos para un mismo debate», *Papeles de Economía Solidaria*, 1, 1-41.
- Polanyi, Karl (1944): *La gran transformación: Los orígenes políticos y económicos de nuestro tiempo*, Fondo de Cultura Económica, Mexiko.
- Razeto, Luis (2005): «El concepto Solidaridad. Pensamiento Crítico Latinoamericano», *Conceptos Fundamentales*, 3, 971-985.
- , (2017): *Los caminos de la economía solidaria*, Universitat nueva civilizacion, Txile-Kolonbia.
- REAS Euskadi (2016): *Transformando los territorios desde la economía solidaria: Herramientas para el impulso de políticas públicas locales*, REAS Euskadi, Bilbo.

- REAS (2011): «Carta de principios de la economía solidaria», online publikazioa, berreskuratuta (2020/06/06): [_<https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/2011%20EKONOMIA_SOLIDARIOAREN_GUTUNA_REAS.pdf>](https://www.economiasolidaria.org/sites/default/files/2011%20EKONOMIA_SOLIDARIOAREN_GUTUNA_REAS.pdf).
- Sajardo, Antonia, eta Chaves, Rafael (2006): «Balance y tendencias en la investigación sobre Tercer Sector no lucrativo. Especial referencia al caso español», *CIRIEC-España, Revista de economía pública, social y cooperativa*, 56, 87-116.
- Nordhaus, William. D. & Samuelson, Paul. A. (2005): *Economía*, decimoctava edición, McGraw-Hill, Mexiko DF.
- Singer, Paul (2007): «Economía Solidaria. Un modo de producción y distribución», in J.L. Coraggio (ed.), *La Economía Social desde la periferia. Contribuciones latinoamericanas*, Buenos Aires, Altamira, 59-78.
- Webster, Frederick E. (1975): «Determining the characteristics of the socially conscious consumer», *Journal of consumer research*, 2, 3, 188-196.

